

ZUREZKO KOADROA

1- Sarrera

Musealiak proiektuaren testuinguruan, ondarea gizarteratzeko asmoarekin, Igartubeiti Baserri Museoan irailetik martxora arte ikusgai egongo den hurrengo pieza aurkezten dizuegu.

Aurrekoetan erakusgai egon diren piezekin alderatuz gero, oraingo honetan erakusgai egongo den objektua esan liteke ezberdina dela, hau da, bestelako izaera eta nortasuna duen objektua da, eta pieza bera egin zeneko helburua ere bestelakoa litzateke.

Ikusgai egongo den pieza **zurezko koadro bat da**. Ez da orain arteko objektuak bezala baserri munduari erreferentzia egiten dion etnografia pieza. Hala eta guztiz ere, baserriak gai edo paradigma bezala izan duen tratamenduaren inguruko hainbat xehetasun erakusten ditu, baserria ikur edo simbolo kultural bezala nola irudikatu izan den hausnartzeko eta pentsarazteko abagunea sortzen duen objektua da.



2- Aurkezpena

Zurezko koadro laukizuzen bat da, dekoraziorako egindakoa. Egurra zizelkatuz eginda dago, hainbat erliebetako forma emanaz. Koadroaren sinbologiaren oinarria XX. mende hasierako sagardotegia eta haren inguruan sortzen zen giroa irudikatzen duen eszena da.

Koadroaren ezker eta erdi aldean sagardotegi bat ageri da. Arkupe baten zirrikituetatik barrenean sagardo barrikak ageri dira errenkadan. Barriken aurrealdean berriz, saltzaile bat ikus daiteke aurrean mahaia eta sagardoa zerbitzatzeko edalontzi edo pitxerrak dituela. Nabarmentzekoa da, emakumea dela sagardotegiko saltzailea.



Sagardotegiko sarrerako arkupearen ondoan Mikeletea dago. Koadroaren eskuinaldean berriz, sagardotegiaren eraikinaren alboan hiru gizonezko ageri dira, eta garai hartan sagardotegi eta nekazal giroan oso ohikoa zen joko batean ari direla ikus daiteke: toka jokoan. Toka jokoan, Euskal Herriko joko tradizional bat da. Metalezko pieza batzuk eskuz jaurtita, metro batzuetara dagoen *toka* izeneko xafla bati jotzea da jokoaren gakoa.

Koadroak, bere buelta guztian marko itxurako taila bat dauka, lore irudiekin apainduta. Intxaurrondoaren zurarekin dago eginda.



Esan bezala, ez da baserri munduari zuzenean lotzen zaion pieza bat, baizik eta apaintzeko helburuarekin egindako pieza bat da. Oro har, nekazal munduko giroa adierazten du, baina batez ere aisialdiari lotuta, eta sagardotegia edota toka bezalako arloak ageri dira. Beraz, nekazal mundua eta hari erreferentzia egiten dioten elementuak ageri dira koadroan, baina modu sinboliko batean erabilia

daudela esan liteke, hots baserria eta nekazal munduaren inguruko ikuspegi eta erabilpen artistiko baten aurrean gaude.

3-Jatorria

Zurezko koadro hau XX. mende hasierako lehen hamarkadetan egindakoa dela esan liteke, eta garaiko burges familia batentzako enkarguz egindakoa da, zehazki Laffort senar emazte frantziarrei egindakoa.

Laffort sendia hainbat urtez bizi izan zen Gipuzkoan. 1937. urtean Zarauzko zurgin bati eskatu zioten egin zitzan beraientzako hainbat altzari mota: mahaia, bizkar-aulkiak, arasak, besaulkiak, lanparak, etab. Eta horiekin batera zurezko koadro hau ere egin zuen zurgin hark. Tamalez, aipatu altzariak egiteko eskatu zuten Laffort senar-emazteen ondorengoek, orduko hartan adin txikikoak izanik, ez dute gogoratzen Zarauzko zurginaren izenik, beraz ez dakigu zehazki zein zurgin izan zen altzari haiek eta tartean koadro hau egin zituena.

Beraz, zurezko koadro hau Laffort sendiaren ondasuna izan zen, eta Gipuzkoatik Parisera bizitzera joan zirenean beraiekin eraman zuten. Horien ondorengoek, haietariko zenbait gaur egun Euskal Herrian bizi dira, piezen jatorriaz eta duten ondare balioaz jabeturik Gordailuari, Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa, dohaintzan eskaini zioten. Gaur egun, altzari horiek, eta zehazki zurezko koadro honek Gipuzkoako ondare bilduma osatzen dute, gure gizartearen bilakaera historikoaren eta kulturalaren adierazgarri baitira.



Garai hartan, oso ohikoak ziren zurezko altzari dotoreak izatea burges familietan. XIX. mendetik aurrera, gisa honetako altzarietan eta bestelako artelanetan modan jarri zen dekorazio elementu bezala baserriari loturiko iruditegiak egitea, aurrerago ikusiko dugun moduan, “neovasco” bezala ere ezagutu izan dena.

4-Piezaren balio artistikoa

Aipatu dugun bezala, koadro honen jabetza Lafforte sendiarena izan zen, XX. mendean zehar. Ez da beraz, baserri munduarekin zuzenean eta ohi moduan lotzen den objektu etnografiko bat, hots, baserriko bizimodua adierazten duen ondare material bat; ez eta eguneroko bizitzako lanetan erabiltzen zuten lanabes bat.

Bestelako helburu batekin osatutako pieza bat da, artelan bat esan genezakeena. Ez dakigu egilea nor izan zen, ziur asko ez zen artista ospetsu edo bereziren bat izango. Zurgintzan zebilen ebanistaren batek egindako pieza artistiko bat da. Garaiko egile ospetsu bat ez izateak ordea, ez dio duen balio artistiko berezia kentzen, ez eta gutxiesten.

Izan ere, normalean zurezko piezetan egiten ziren taila lanak, tradizionalki gai edo sinbologia erlijiosoei loturikoak izaten ziren, esate baterako kutxetako gurutzeak edo eguzkiaren eta argiaren iruditeriari loturikoak. Honako hau ordea, bestelakoa da.



Pintura edo oleo bat izan zitekeena, zurezko koadro formatoan eginda dago. Hots, garai hartan euskal mundu tradizionalaren inguruko adierazpenak normalean pinturetan egiten ziren batik bat, margolanak, baina, kasu honetan zurezko koadro bat da. Berez, ohiko gaitegia izanagatik, egia esan ezohiko pertsonaiak daude bertan, eta elkarrekin: sagardotegiko emakumea, mikeletea eta toka jokoan dabiltzanak. Agertzen den sagardotegia, esan kaleko girokoa edo testuinguru kaletarrekoa dela gehiago, hiriguneari loturikoa hain zuzen ere.

Ahozko tradizioan askotan agertu izan den elementu bat da, baina oso gutxitan agertu izan da gisa honetako irudikapenetan, hots bere horretan pieza artistiko bat bezala. Bestalde, antzerako iruditegiak, baserri munduari loturikoak; izaera artistikoa baino balio edo erabilera funtzionala zuten elementuetan ageri izan dira: oheburukoa, altzariak edo antzerakoak. Kasu honetan berriz, bere horretan artelan bat da, egurrean egina, eta horrek izaera berezia ematen dio.

Aldi berean, teknikoki ere ezaugarri berezia duela esan liteke. Izan ere sakontasun sentrazioa oso ongi adierazita dago: sagardotegi barnealdeko kupelek plazaratzen duten barrenerako sentrazioa, edota toka jokoarenak irudikatzen duena. Izan ere, kontuan hartu behar da, ziurrenik egilea berez artisaua izango zela, eta ez artista.

5-Baserria artean: “euskalduntasunaren arketipoaren bila”. XIX eta XX. mendeak

Hainbat ikuspegi eta arlotako ikerlariak azaldu duten moduan, baserria euskaltasuna eta haren historia mitikoa barnebiltzen dituen elementu paradigmatico bezala definitu izan da XIX. mendetik ia gaur egunera arte, hots, euskal identitatea irudikatzeko ikur gisara hartu izan da.

Euskal Pizkundearen harira, XIX. mendetik XX. mende erdira arte, mugimendu artistikoak baserria eta landa eremua gai nagusi moduan landu izan ditu, euskal identitateaz modu artistiko batean jarduteko. Garaiko euskal artistak, arte modernoaren eta beraien testuinguruko errealitatearen arteko sintesi bat egiten saiatu zirela esan liteke. Ildo honetatik, tokiko artisten saiakera ugarik euskal arima sinbolikoaren bilaketa izan zuten helburu.

Hala, mugimendu politiko eta kulturaletatik zetorren joerari jarraiki, XIX. mendetik zetorren nazionalismoaren eta erromantizismoaren olatuaren zipriztinetan, baserria eta hari loturiko mundua irudikatuko dute euskal nazioaren gordailu bezala. Jatorrizkotasunarekin lotura duten balioak eta elementuak jorratzen hasi ziren, eta baserriak horretarako aukera paregabea eskaintzen zuen. Izan ere, baserriak, nahiz eta jatorria garai historiko zehatz batean duen, garaiko gizartea antzinateko euskal munduarekin lotzen zuenaren imaginarioa oso errotuta zegoen. Bai instituzio politikoek, bai bestelako eragileek eta baita gizarteak orokorrean, baserriari euskaltasunaren nortasunaren berme izatearen balioa ematen zioten.

Onintza Echebestek, bere tesian ongi azaltzen duen moduan, Erregimen Zaharraren ondoreneko autonomia bilaketan, nazio proiektua eta kultura onartu, berretsi edo berreskuratuko zituzten joerak nagusitu ziren. Antolaketa politiko, ekonomiko, sozial

eta kultural tradizionalaren desegituraketa baten testuingurupean, gizartearen eta artisten beharra bilakatu zen ikur ziren elementu horien bilaketa eta lanketa. Kasu honetan artearen eta pinturaren bidez egin zuten.

Baserria eta hari loturiko bizimodua artearen bitartez lantzeak, argi erakusten du orduko nazio eraikuntzaren lanketaren baitan baserriak garrantzia nabarmena izan zuela, ikur sinboliko edo irudikapen gisa bada ere. Nolabait ere, bertan biltzen baitziren, besteak beste, euskal nazioaren eta nortasunaren ezaugarri eta balioak.

Hala eta guztiz ere, nabarmendu behar dena da, baserria nazioaren eraikuntzarako elementu edo osagai bezala definitzea eta artearen bitartez honelako lanketak egitea, hiriko mundutik edo testuingurutik zetorren begiradak eraikitako eta definitutako joera izan zela. Hots XIX. eta XX. mende hasierako euskal aristokrazia eta burgesiaren begiradatik eraikitako baserriaren iruditegia litzateke hau.

Baserritarrek beren burua eta beraien bizitoki eta lantoki zen baserria modu horretan ikusten eta ulertzen ote zuten, beste kontu bat litzateke.

6-ADIBIDEAK

Zentzu honetan, landatar atmosferaren adierazpenari dagokionez, lehenengo belaunaldiaren ordezkariak Antonio Lekuona, Francisco de Bringas edota Adolfo Guiard izan zirela esan liteke. Artista hauen lan esanguratsuenei erreparatuz, aipagarrienak ondorengo hauek izan zirela esan liteke: Lekuonaren *Romería en Salbatore* (1866) [1] izeneko margolana. Bertan autore honek, euskal ekosistema eredugarri bat birsortu nahi zuela esaten da, itsasoa eta mendia bezalako ezaugarri sinbolikoak oinarri bezala hartuz.



1. Irudia. *Romería en Salbatore*. Egilea: Antonio Maria Lekuona Echaniz. 1866. urtean egina.

Bide horretatik, De Bringasek ere *La Torada* (1854) [2] obraren bitartez garaiko euskal gizartearen ohiturak islatzea izan zuen helburu.



2. Irudia. *La Torada*. Egilea: Francisco de Paula Bringas. 1854. urtean egina.

Guiardiri dagokionez, bere obra anitzen artean *El aldeano de Bakio* (1888) [3] delakoa bereizi daiteke. Bakioko herrian burutu zituen margolan ezberdinen bitartez, garrantzi berezia eman zien landan bizi eta lan egiten zuten giza irudiei. Aipatzekoa

da ere, Guiardik bere ikasketak arestian adierazitako Antonio Lekuona artistarekin batera burutu zituela



3. Irudia. *El aldeano de Bakio*. Egilea: Adolfo Guiard Larrauri. 1888. urtean egina.

Beste alde batetik, honako artista hauek ere aipatu ditzakegu: Arteta, Arruetarrak edo Zubiaurre anaiak. Euskal nortasunarekin bat egiten zuten ikono eta sinboloz beteriko euskal jendarte eta giroetan oinarritu zituzten beraien lanak. Hots, jatorrizko baserritar munduaren alegiazko irudikapenetan, hiri eta landatar gizartearen arteko haustura bat eraginez. Artetak esaterako, horixe bera helarazi nahi izan zuen bere artelanen bitartez [1,2], landa eremuko nortasun puru hori gorpuztuz eta aldi berean, hiriko ingurugiro antinatural eta kutsakorra auzitan jarriz, arestian aipatu den hiri eta landaren arteko dikotomia hori ere bistaratu.



4. Irudia. *Niña en la ventana*. Egilea: Aurelio Arteta. 1920. urtean egina.



5. Irudia. *Baserritarra con vaca y ternera*. Egilea: Aurelio Arteta. 1913-1915. urteetan egina.

Aipaturiko paradigma horren ildoak jarraituz, Arruetarren lanetan [6,4], baserriaren irudi arketipikoak, erromeri jendetsuak eta paisaiari ematen dioten tratamendua dira ezaugarri bereizgarrienak. Izan ere, artelan horietan: umorea, kolore biziak eta dinamismoz beteriko konposizioak izango dira hizpide.



6. Irudia. *Encuentro en el camino*. Egilea: Ramiro Arrue. 1925, urtean inguru egina.



7. Irudia. *Campesino*. Egilea: Jose Arrue. 1925. urtean egina.

Zubiaurre anaiek egindako obren kasuan [8,9] , baserriko arbasoengan jartzen dute fokua euskal arima azalertzeko xedez. Honekin batera, euren artelanetan nostalgia puntu bat ere antzeman daiteke, galtzear dagoen landa gizarte baten isla baitira.



8.

Irudia. *Amona de Garai*.

Egilea: Valentín de Zubiaurre.

XX. mendeko lehen erdian egina.



9. Irudia. *Pareja de aldeanos vascos*.

Egilea: Valentín de Zubiaurre.

1920. urtean inguru egina.

Adibide sorta gehiago ere jarri daitezke, baina funtsean oinarrian dagoen ideia berbera litzateke. Hots, baserria unitate ekonomiko eta sozial bat izateaz gain, azken bi mendeetan, testuinguru kultural eta politiko jakinen baitan esanahi zehatz batzuk eman zaizkion sinboloa izan da. Baserria eta hari loturiko iruditegi zabala erabili izan dira garaian garaiko euskal kultura eta nortasunaren giltzarri bezala. Ordea, iruditegi eta adierazpen horiek, baserriak lanbide eta ogibide bezala bizi duen errealitatetik eta dituen erronkekatik urrundu egin izan direla ziurtatu daiteke, iruditegiaren eta errealiarearen arteko kontraesana eta haustura sortuz.

Honenbestez, Musealiak proiektuaren baitan aurkezten dugun zurezko koadro honek baserriak, eta hari loturiko elementu ezberdinek, sinbolo eta iruditegi bezala izan duen bilakaera eta trataeraz pentsatzeko abagunea eskaintzen digu, eta honako hau pentsatzera garamatza: Zer da gaur egun baserria? Nola definitzen eta

irudikatzen dugu? Eta zer leku dauka edo izan beharko luke baserriak gaurko gure gizartean?